

2. BANAKAKO LANA: ondoko testu hauekirakurri eta gero, zer esango zenuke LEKUKOTASUNari buruz?

-Platon:Sokratesen defentsa.

-Mary Beard: La voz pública de las mujeres.

-Agustin Arrieta: Sinesmenak eta usteak(lehenengo kapitulutik 7.era, biak barne)

Lekukotasuna, boterea eta zentzu komuna

1.1 Lekukotasun ezberdinen balioaz

1.2 Sokratesen lekukotasunaz eta usteen eta ekintzaren arteko harremanaz

1.3 Usteak eta boterea

2. Bi ohar zentzu komunari buruz

2.1 Zentzu komunaren manipulazioa

2.2 Zentzu komuna eta zientzia: Jakintzaren demokratizazioa

Lan honek lekukotasunaren, zentzu komunaren eta talde ezberdinen arteko botere harremanen inguruko zenbait gogoeta biltzen ditu. Beraien oinarrian hiru testu daude, lan osoan zehar aipatuko ditudanak. Usteen eta boterearen arteko harremanean sakontzeko, Agustin Arrietaren *Sinesmenak eta Usteak* (2010) liburuan azaltzen den lekukotasunaren kontzeptua Mary Bearden “La voz pública de las mujeres” kapituluarekin eta Sokratesen defentsarekin lotuko dut. Horretaz gain, zentzu komunari buruzko bi gogoeta labur daude lanaren bukaeran, hein batean botere eta jakintzaren arteko loturaren beste islada bat direnak.

1.1 Lekukotasun ezberdinen balioaz

Arrietak (2010) gure usteak finkatzeko bide ezberdinak azaltzen dizkigu, Charles Sanders Peircek egindako banaketan oinarrituta: Ostrukaren eredua daukagu (non helburua uste bati tinko eustea den, kosta ala kosta, gure zalantzak baretzeko), ardiarena (non autoritateak agindutakoa sinesten dugun), koherentziarena (non aurreusteak eta aurreiritziak jartzen diren ebidentziaren aurretik) eta zentzu komunarena (arrazoimena, memoria eta zentzumenak erabiltzen ditugunean). Baina bada beste usteak finkatzeko modu bat, lekukotasunarena, eta lan honetan honi emango diogu garrantzia handiena. Zertaz ari gara esaten dugunean lekukotasuna jakituria (sinesmenak, usteak, iritziak...) iturri bat dela? Ba eskolaz, irratiaz, telebistaz, gurasoetaz... Nabarmena da, beraz, usteak eskuratzeko bide hau lotua dagoela autoritatearen ereduarekin, izan ere, bai gurasoak bai eskola bai telebistan agertzen diren kazetari nahiz zientzialariak autoritate bat daukate, eta horregatik dira gai haien usteak ikasleei, seme alabei zein ikusleei helarazteko. Autoritatearen lekukotasun hau esperientziaren bidez, hau da, zentzu komunaren bidez, izango da mugatua, horrela konturatzen delako norbanakoa kontatu dioten hura eta errealitatea ez datozela bat.

Thomas Reid filosofoaren iritziz bi printzipiori esker bete ditzake bere eginkizunak lekukotasunak: Alde batetik sinesgarritasunaren printzipioa (esaten digutena sinesteko joera) eta bestetik egiazkotasun printzipioa (gizakiok egia esateko joera naturala daukagula). Baina denok sinesgarritasun bera al daukagu? Hau da, berdin balio al du denon lekukotasunak? Galdera honek Mary Bearden testuak planteatzen duen auzira garama zuzen zuzen.

“La voz pública de las mujeres” testuan Beardek (2018) Antzinaroko hainbat adibide erabiltzen ditu erakusteko emakumeak nola baztertzen zituzten diskurtso publikotik, eta nola diskurtso publikoak egitea eta hizlaritza genero maskulinoan ezaugarri bezala izan ziren eraikiak. Sokratesen defentsan bertan ikus daiteke nola Sokratesek uko egiten dien hainbat argudiori ez duelako nahi bere lekukotasuna emakume batena bezalako izatea.



jo

Baina Beardek dioen bezala, hau ez da Antzinaroko kontua bakarrik, besteak beste, gaur egungo eztabaida eta diskurtso publikoak mundu klasikoaren ereduari jarraitzen diotelako. Hala ere, ez dugu hain atzera behar emakumeen lekukotasunaren debaluazioa ikusteko, Erdi Aroan ere ikus dezakegu nola emakumeek emandako informazioa ez zen gizonezkoen hitzaren parekoa. Hasieran “gossip” (euskaraz, txutxumutxu) hitza lagunak ziren emakumeei esateko erabiltzen zen, baina denborarekin, beste esanahi bat atxiki zitzaion: Sasi-informazioarena, fidagarria ez dena, eta garrantziarik gabea, arinkeria. Horra hor “scold” izeneko tramankulu sadikoak, hitz eginez gero emakumeari mingaina errotik ateratzeko (Federici, 2019). Gaur egun ere baditugu adibideak: Orain dela gutxi entzute handia izan du

EE.BB-etan propio bere ahotsa grabeago egin zuen emakume batek, Theranos enpresa sortu eta milioiak lapurtu zituena, inoiz ere erakutsi gabe zein zen bere enpresaren produktua. Askok bere ahots grabeari egotzen diote bere sinesgarritasuna¹. Maskulinoagoa emateak balio handiagoa eman zion Elizabeth Holmesen lekukotasunari.

Baina Beardek ez du emakumeen lekukotasuna historikoki debaluatu izan dela bakarrik esaten, zera ere azpimarratzen du: Mundu klasikoko kontakizunetan, emakumeari espazio publikoan hitz egiteko aukera eman zaionean, normalean, emakumeen izenean hitz egiteko izan dela, eta ez, gizonak bezala, era unibertsal batean, denontzako. Honek zera dakarkit gogora, ITAIako kide den Nahia Santanderrek feminismo posmodernoari egindako kritika, zeini, besteak beste, zera leporatzen dion: Emakumeak eksklusiboki feminismoan militatu eta formatzera bultzatzen dituela, emakumea subjektu partzial gisa mantenduz, eta ez politikaren edozein arlo nabigatzeko gai den subjektu integrala izateko prestatuz (Santander, 2019).

Emakumeraren lekukotasunak balio du, horrenbestez, emakumeen izenean, edo beste emakumeei, hitz egiteko; sinesgarria izango da bere esperientziaz ari denean, baina ez horrenbeste mahai gaineratu beharreko auziak ez badaude genero femeninoari lotuak. Kasu horietan, zalantzan jartzen da emakumeen autoritatea, haien fidagarritasuna. Honekin ez dut esan nahi, noski, emakumea denik lekukotasun debaluatu izan duen eta daukan bakarra. Beste adibide bat haurrak lirake, zeintzuk askotan

¹ Bideo honetan ikus daiteke, ez bakarrik Elizabeth Holmesek bere ahotsa aldatu zuela, baizik eta mahaian dauden beste emakumeek ere jaso dituztela laudorioak beraien ahots grabeagatik, edo kritikak, ahots grabe ezagatik: https://youtu.be/Al_a-B6F1Eq .

ez diren “serio hartzen”, nahiz eta honek agian zerikusi gehiago daukan beraien usteen mapa osatu gabearekin. Arrazakeriak ere eragina dauka pertsonon sinesgarritasunean. Honen adibide bat da EE.BBtan frogatua dagoela beltzak direnei zuriei baino minarentzako medikazio gutxiago errezatzen dietela medikuek, eta orokorrean, kasu gutxiago egiten dietela haien gaitzei. Beraien lekukotasunaren sinesgarritasuna, baita norberaren osasunaz ari direnean ere, ez dago zurienaren mailan. Honek ondorio larriak ditu: 1990tik 2013ra erditzean edo erditu eta gutxira hildako emakumeen kopurua bikoiztu egin da EE.BBtan, eta haien artean emakume beltz kopuru desproporzional bat dago. Azken finean, usteak eta ekintzak ez dira independenteak.

1.2 Sokratesen lekukotasunaz eta usteen eta ekintzaren arteko harremanaz

Usteen eta ekintzen arteko lotura hau Sokratesen defentsan ere ikus daiteke. Baina horretan sakondu baino lehen, ikus dezagun usteak finkatzeko zer bide ezberdin erabiltzen dituen, edo, hobe esanda, erabili zituen, hain ospetsua den filosofo honek.

Sokrates arrazoimenaz baliatzen da bere bizia salbatzeko, adibidez, argudiatuz berak ez dituela gazteak galbidera eramaten, hala egingo balu, nahita (Melitok leporatzen dion bezala), bere burua kaltetuko lukelako. Era beretsuan argudiatzen du erabat faltsua dela egozten zaion fede falta, aldi berean esaten baitiote ez duela Jainkoengan sinesten eta demonioengan sinesten duela. Deabruak ere Jainkoak direnez, bere kontrako argudioaren koherentzia falta seinalatzen du.

Baina Sokrates ez da arrazoimena ezaugarri duen zentzu komunaz bakarrik baliatzen bere defentsa indartzeko. Besteak beste, Belfoseko Jainkoaren autoritateaz baliatzen da bere burua zurrizteko, ardiaren edo autoritatearen ereduari jarraiki. Antzeko zerbait egiten du bere jarraitzaileei eta haien familiei erreferentzia egiten dienean, esanez denak bere alde daudela. Horretaz gain, bere lekukotasuna moralki defendatzen saiatzen da, esanez, adibidez, berak ez duela sekula soldatarik eskatu egiten duenagatik.

Argudiatzeko bide ezberdin hauek erabilia ere, Sokratesek ez du lortzen heriotza zigorra saihestea. Agian arrazoia da bere lekukotasunak ez zuela bat egiten epaileen usteekin, edo agian ados zeuden Sokratesekin, baina hiltzera kondenatu zuten, egiari muzin eginez, egia aurkitzeaz bestelako interesak zeuzkatelako. Izan ere, Sokratesen defentsa kontu politiko bat da, eta kontu politikoak bereziak dira, usteak finkatzeaz eta defendatzeaz ari bagara.

Arrietak (2010) dioten bezala, uste guztiak ez daude maila berean: Erljiioari eta politikari lotutako usteak bereziak dira (antzekoa esan daiteke etikari eta estetikari buruz), ez diotelako erreferentzia egiten mundua den moduari, baizik eta izan beharko lukenari. Mundua nolakoa den esaten duten usteak (adibidez, zeru oskarbia urdina dela) mugatuagoak dira, nahiz eta ez duten zertan ziurrak izan. Baina, zer zentzutuan daude mugatuagoak? *Sinesmenak eta Usteak* liburuan azaltzen den bezala, gizakiak gure usteen mapa aldatzen, fintzen, goaz, ez bakarrik, baizik eta testuinguru sozial batean, era intersubjektibo batean.

Horrenbestez, gure usteek ez dute presioa jasaten egiarengandik bakarrik (zerbait uste izatea lotua baitago zerbait hori egiazkotzat jotzearekin), inguruarengandik ere jasotzen dute, usteek ondorioak dituztelako, eta gure usteen eraginaren erantzule garelako. Hori zeragatik da, usteak lotuak daudelako, bai egiarekin, baina baita ekintzarekin ere.

Erraza da uste eta ekintzen arteko lotura hori ikustea Mary Bearden testuan: Emakumearen lekukotasunaren desbalarizazioa eta bere gaitasun arrazionalen gutxiespena emakumea espazio publikotik baztertzearekin batera dioa, eta emakumeari funtzio sozial jakin batzuk egoztearekin batera. Zerk eragiten duen zer, hori beste baterako utziko dut. Uste eta ekintzen arteko lotura honen beste adibide agian piska bat xelebrea goa Sokratesen bukaerako mehatxua da. Bere ustetan, bera ez da erruduna, berak Jainkoaren nahia baino ez du egiten, horrenbestez, logikoa da bere oharra: Zigortzen badute, azkenean, Atenas guztia izango da zigortua, Jainkoa iraintzeagatik eta herrian gorroto sentimendua bultzatzeagatik.

1.3 Usteak eta boterea

Usteen mapa finkatu bat edukitzea ezinbestekoa da gure mundua nabigatzeko, nahiz eta komeni den malgutasun apur bat edukitzea, bestela, ostrukarena ariko gara egiten. Interesgarria da, hala ere, gogoeta bat egitea norberaren usteak zabaltzeko egon daitezken zailtasun edo erraztasunen inguruan. Sokratesek ongi ikusi zuen zer arrisku ekar zitzaken bere iritziak Atenasko gazteengan zabaltzeak. Baina Sokratesek bazeukan behintzat errespetu bat, botere bat, besteek bera entzuteko. Ez dut ukatzen hau, hein handi batean, Sokratesen hitz egiteko gaitasunari eta berak plazaratzen zituen gaien interesagatik zela, nire helburua ez baita bere meritua zalantzan jartzea. Baina Sokrates gai zen egiten zuena egiteko, besteak beste, gizona zelako, eta gainera, hiritar askea. Bere lekukotasunak ez zuen balioa, automatikoki, gizona izateagatik bakarrik; emakumeen kasuan berriz, Beardek erakusten digun bezala, haien lekukotasuna debalutua zegoen emakume izate hutsagatik.

Hemen bi auzi daude: Subjektu ezberdinen lekukotasunaren sinesgarritasuna ez dela berbera, eta batzuk besteak baino askoz gaitasun gehiago daukatela haien lekukotasuna gizartean zabaltzeko, haien usteen mapa gizartean hegemonikoa egiteko. Azken finean, harreman estua da botere eta jakintzarena.

2. Bi ohar bat zentzu komunari buruz

2.1 Zentzu komunaren manipulazioa

Interesgarria iruditzen zait azkenaldiaren zentzu komunari buruz egin diren adierazpen batzuk aipatzea, gaineratik bada ere. Hauteskundeak izan berri dira eta askok oraindik fresko daukagu VOX alderdiaren kanpaina, zeinetan zentzu komunari apelatzen zitzaion, “El sentido común no entiende de etiquetas²” eta “¿No es de sentido común defender nuestra Patria?” bezalako esaldiekin.

Ikus dezakegu, beraz, zentzu komuna ez definitzea arriskutsua izan daitekela, kontzeptua tresna politiko bat bilakatzen delako. Kontraesana, kasu honetan, nahikoa argia da. Bellarminok zeruari begiratu nahi ez zion bezala (nahiz eta gero, adibidez, zopa begiratu konpromatzeko ez zala bertara eulirik erori), VOXekoak ez dute aberria defendatzeaz hitz egiten pentsioez edo zergez ari direnean. Hau ez da harriztekoa, lehen esan bezala, uste politikoak bereziak dira, eta mundua azaltzen duten usteak baino malguagoak.

3.2 Zentzu komuna eta zientzia: Jakintzaren demokratizazioa

² Hemen ikus daiteke bideoa (<https://www.youtube.com/watch?v=oUY0fRi3u5s>).

Hitzbeste eginez, gauza bat esan nahiko nuke Arrietak *Sinesmenak eta Usteak* liburuan (2010) zentzu komuna eta zientziari buruz egiten duen irakurketaz, edo, hobeto esanda, haren ondorio politikoetaz. Esaten badugu aparatu zientifikoak, funtsean, zentzumeneren luzapenak direla, eta zientziaren oinarrian gure arrazoitzeko gaitasuna dagoela (adibidez, matematika eta estatistika gure ahalmen deduktibo eta inuktiboaren isla direla), orduan zera ari gara esaten: Zientzia gizarte batzuetan garatu bada, ez da gizarte horietako kideak beste batzuk baino azkarragoak direlako; zientzia garatzeko ahalmena munduko gizarte orotan dago eta zegoen (hori egikaritzeko gaitasuna agian ez, baina hori beste kontu bat da).

Askok esango lukete gaur egun baieztapen hori ez dela beharrezkoa, baina mendebaldearen gorentasunaren ideiak oraindik badirau gure artean, eta nabaria da azken urtetan muturreko pentsamendu arrazistaren gorakada bat egon da (aurreko atalean aipaturiko alderdi politikoa horren adibide argi bat da). Garrantzitsua iruditzen zait zentzu komunaren eta zientziaren arteko harreman hau seinalatzea, batez ere antropologia bezalako disziplina batean jarduten dugunontzako, hau da, batez ere mendebaldeko pentsamendua gauza goren eta aparteko bezala ikusia izan den disziplinetan gabiltzanontzako.

Bibliografia:

- Arrieta, Agustin (2010). *Sinesmenak eta usteak: Zentzu komunaren alde*. Alberdania, S.L.
- Beard, Mary.(2018).*Mujeres y poder: Un manifiesto*. “La voz pública de las mujeres”.Crítica argitaletxea.
- Federicci, Silvia (2019).How the Demonization of “Gossip” Is Used to Break Women’s Solidarity.In These Times.
- Leskin, Paige (2019).”Theranos founder Elizabeth Holmes used a deep baritone voice at almost all times, but former insiders say it was faked”.Business Insider. In <
<https://www.businessinsider.es/theranos-founder-elizabeth-holmes-deep-voice-2019-3?r=US&IR=T>>
- Platon.(2000). *Sokratesen defentsa*.Jakin argitaletxea.
- Roeder, Amy.(2019). “America is Failing its Black Mothers”.Magazine of the Harvard T.H. Chan School of Public Health . In
<https://www.hsph.harvard.edu/magazine/magazine_article/america-is-failing-its-black-mothers/>
- Santander, Nahia.(2019). “Mugimendu feminista posmoderno: militantzia eredu eta ikuskizunaren politika”.Gedar Langile Kazeta.